

Kanalak

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den azalduko dugu.

Kanalen barruan, honako alderdiak berezituko ditugu: Komunikaziokanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kasu guztiak, bezeroarekiko harreman-puntuak dira.

Bi kanal mota bereiz ditzakegu:

1. Kanal zuzenak, bitartekariak saihesten dituztenak dira. Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat izan daitezke, adibidez.
2. Zeharkako kanalak, hau da, dendak (propioak edota elkartuak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak.

Zeharkako kanalen barruan bi azpimota aurki ditzakegu:

2.1. Elkartutako kanalek: Aukera sorta zabala hartzen dute, nahiz eta irabazi-marjina txikiagoa izan. Marjina eskasagoa eskaintzen badute ere, gure kanal propioak erabiltzean baino bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen digute.

2.2. Kanal elkartuak: etekin-marjina handiagoa eskainiko digute, baina horiek ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa da.

Gure zerbitzua eskeintzeko erabaki dugun modua, zuzeneko kanala da; hau da, bitartekariak saiestu ditugu eta haien laguntzarik gabe, modu pertsonalean eskeintzen dugulako gure zerbitzua.

Bestalde, komunikazio kanalei dagokionez, web orrialde bat sortu egingo dugu gure proiektuarekin batera. Web orrialde honen bitartez, hartzaileak jakin nahi duen informazio guztia eskura dauka; hala nola zenbat bizikleta dauzkagun, ze egunetan egongo garen martxan, gure ordutegia, prezioa etab. Gainera, erreserbak telefonoz, gmailez edo gure web orrialde honetatik egin izango dira, lokalera hurbiltzeko zailtasunak dituztenentzat; baina modu zuzenean ere egin daitezke. Bertan, kontratazioa egiteko aukeraz gaiz, zerbitzu pertsonalizatua eskeiniko zaie. Beraz, horixe izango da gure proiektua ezagutarazteko erabiliko dugun herramienta nagusienetako bat.

Proposatutako gauza, gehienekin bezala, gure web orria, enpresaren eboluzioarekin batera aurrera joango da.

Teknologia garaian gaudela kontutan hartuta, web orrialdeaz gain, sare sozialen erabilera ere bultzatuko dugu komunikazio kanal bezala. Hori dela eta, jende gehiagok edukiko luke gure enpresaren berri. Instagram, Facebook, Twitter etab.rrren plataformetan gure enpresaren inguruko informazio guztia aditzera emango dugu.